

KANALAK

Enpresa batek bere produktu edo zerbitzuak bezeroei aurkezteko hainbat kanal erabiltzen ditu normalean; komunikaziorako, salmentetarako, banaketarako, publizitaterako... Ondorengo atal honetan, hauek zeintzuk diren finkatu eta azalduko dugu.

Hasteko, bezeroak erakartzeko, gure publizitate kanal nagusia sare sozialak izango dira: Facebook, Instagram, Youtube eta Spotify. Gure bezero segmentazioa 15-25 urteko gazteak direnez eta hauen eguneroko bizitzan sare-sozialak oso garrantzitsuak direnez, iruditzen zaigu hau izango dela gure proiektua ezagutzera emateko modurik egokiena. Iragarki bereziak sortuko genituzke Spotify-erako, izan ere, musika-plataforma honetan entzunezko iragarkiak igo daitezke. Beste sare sozialentzako, berriz, ikus-entzunezko iragarkiak sortuko genituzke.



Salmenta kanalei dagokionez, Webgune eta hainbat denda fisikoetan egongo da salgai gure produktuak eskuragarritasun handiagoa izan dadin.

Aldi batetik, produktua Internet bidez salduko dugu, Amazon webgunea baliatuz. Hemen saltzea erabaki dugu, produktu bakarra izatean ez duelako merezi webgune propio bat sortzea. Gainera, Amazon oso famatua denez, jende gehiagori iristeko aukera ematen digu.

Erosketa egiteko, Amazonen sartu beharko dira bezeroak eta bilatzailean "Auka aurikularra" idatzi. Erosketa hau egin baino lehen, Amazon-en kontu bat sortutata beharko dute, kontu bat ez edukitzearen kasuan, formulario hau beteko dute:

amazon_{es}

Crear cuenta

Nombre

Correo electrónico

Contraseña

Al menos 6 caracteres

! La contraseña debe tener 6 caracteres como mínimo.

Confirma tu contraseña

Crea tu cuenta de Amazon

A U K A

Bestalde, Espainian bizi direnek edukiko dute produktu hau erosteko aukera denda fisikoetan; Fnac eta Media Markt elektronika dendetan egongo da salgai. Denda hauek aukeratu ditugu Espainian zehar merkataritza-establezimendu asko dituztelako eta honi esker, bezero gehiago erakar ditzaketelako. Hala ere, Urretxu eta Zumarragako gailu elektroniko eta bazar dendetan egongo dira salgai, izan ere, herri hauetan ekoiztuko dugu Auka.

Honi esker, bezeroak dendara joan eta zuzenean produktua eskuratzeko aukera izango dute. Etorkizunera begira, gure online-salmenta Europar Batasunera hedatzea gustatuko litzaiguke.



Banaketa kanalarik dagokionez, gure produktuak Amazonen saldu arren, produktuak guk bidaliko ditugunez, Correos bidez egingo ditugu bidalketak. Enpresa hau aukeratu dugu bi herrietan ofizina bana duelako eta honi esker erraz eta bizkortasunez egin ditzakegu bidalketak. Hau da, Amazonetik nora, nori eta zenbat bidali behar ditugun esatean, gu joango gara Correos-eko bulegora eta bertatik bidaliko ditugu paketeak. Fnac eta Media Markt-era paketeak bidaltzeko ere erabiliko dugu Correos. Bestalde, herriko denda batzuetan salduko ditugunez, gu geu joango gara beraiengana aurikular kaxak eramatera.

